

Orioko San Nicolas Kofradia Zaharraren Birgaitzea

Orioko Itsas Oroimenaren Museoa

Ikaslea: Leire Lertxundi Azpiazu

Tutorea: Eneko Jokin Uranga

GrAL 2017 Uztaila

_DATU OROKORRAK

Proiektuaren izena: **Orioko San Nicolas Kofradia Zaharraren Birgaitzea**
Idea: **Orioko Itsas Oroimenaren Museoa**
Ikaslea: **Leire Lertxundi Azpiazu**
Tutorea: **Eneko Jokin Uranga Santamaria**
Deialdia: **2017ko Uztaila**

_PROIEKTUAREN LABURPEN MEMORIA

1_PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

- 1.1 Zergatik Orion?
- 1.2 Zergatik Museoa? Zergatik Kofradian?

2_KOKAPENA

- 2.1 Kokapen Geografikoa
- 2.2 Kokapena herrian
- 2.3 Altxaera orokorrak
- 2.4 Orubearen kokapena

3_TESTUINGURU HISTORIKOA

- 3.1 Hirbilduaren bilakera
- 3.2 Barra eta moilaren garapena
- 3.3 Aktibitate ekonomiko nagusiak
- 3.4 Untzigintzaren bilakaera
- 3.5 Herriaren hazkundera

4_ERAIKINAREN AZTERKETA

- 4.1 Kofradiaren argazki bilduma
- 4.2 Denbora lerroa
- 4.3 Inguru gertua-mugak
- 4.4 Kofradiaren arkitektura
- 4.5 Materialtasuna-Patologiak
- 4.6 Hirigintza azterketa

5_HELBURUAK-ESTRATEGIAK

- 5.1 Helburuak
- 5.2 Interbentzio Prozesua
- 5.3 Proposamena
- 5.4 Programa
- 5.5 Antolamendua

6_PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN ARKITEKTONIKOA

- 6.1 -6.5 Oinak
- 6.5 - 6.10 Fatxada eta Ebaketak


7_PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN TEKNIKOA

- 7.1 Egitura proposamena
- 7.2 Eraikuntza-Materialtasun proposamena
- 7.3 Eraikuntza xehetasunak
- 7.4 Instalakuntza eskema

Proiektuaren justifikazioa:

_Zergatik Orion?

Euskal Herriko untziolen kokapena
1500-1840



Itsas Oroimena bultzatzen duten zenbait aurrekari
Euskal Herrian

● **Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa**
Bilbo



● **Bermeoko Arrantzaleen museoa**
Bermeo



○ **Mutiozabal Untziola Proiektua**
Orio (proiektu egoeran)



● **Donostiko Untzi Museoa**
Donostia



● **Itsas Kultur Faktoria ALBAOLA**
Pasaia



Proiektuaren justifikazioa:

_Zergatik Museoa?

Oriok historian zehar bildu duen itsas ondarea aztertu eta etorkizunarekiko itsas eta pertsonen arteko harremana bultzatu nahi da. Herriaren aktibitatea aztertu eta tradizioa dibulgatu. Horretarako proposatzen da Itsas Oroimenaren Museoa, itsasoarekin lotura duten gainontzeko elkarteekin lotura uztartzeko.

_Zergatik Kofradia Zaharreen?

Orioko Kasko Historikoan katalogatuta dagoen arren, Kofradiak gaur egun ez du inolako babesik.

Hala ere, herriaren garapenean paper garrantzitsua izan du, izan ere, itsasoa et herritarrak bildu izan dituen eraikina izan da. Bertan gauzatu dira ia 100 urtez Orioko garapenarekin zer ikusia izan dituzten aktibitateak (untzi, arrantza, merkataritza...). Beraz, herriarekin lortu duen loturari balioa eman nahi zaio, jatorrizko erabilerarekin ondo uztartzen den museo bat proposatuz.



Gainera, Orioko fatxadaren parte da, urtez urte herriari aurpegia eman diona Oria itsasadarrerantz.



Arrantza




Merkataritza



Untzigintza



Arrauna



_Skol ar Mor untziola



_Berreskuraturiko betela Algortan




_Baduola Elkarte, tailerra




_Baia eguna Orion



_Corpus Cristi elkarte ekintza



Oriako Itsasadarra




_Ori

Orio Gipuzkoako kostaldean, Beterri izeneko eskualdean kokatzen den 5900 biztanleko herri arrantzalea da. Herria Oriai ibaiaren azken meandroaren ondoan dago kokatuta, Kantauri itsasoarekiko parez pare.

Orioko udalerriko lurraldeak 9,81 km² ditu. Oriai ibaiak zehazten ditu Orio eta Aia arteko hegoaldeko eta mendebaldeko mugak. Aipagarria da Oriai ibaiaren bi ertzak Orioren jurisdikzioaren pean daudela, nahiz eta ibaiak bi udalerrien arteko mugak ezarri, tradizioz Oriok kontrolatu baitu ibaiak. Iparraldetik Kantauri itsasoak ezartzen du muga nagusia. Udalerriaren ipar-ekialdea Talaimendi mendiak osatzen du, Kukuarri (362m) gailur duela.

Kasko Historikoa - Kofradiaren kokapena



_Herriko Gune Esanguratsuak:

- 1.San Nikolas Kofradia
- 2.Anbulategia/Eguneko Zentroa
- 3.Leunda Fabrika
- 4.Arostegui Tailerrak
- 5.Bigarren Hezkuntza Eskola
- 6.Kiroldegia
- 7.Kirol Zelaiak
- 8.Karkara Kultur Etxea
- 9.Danbolin Musika Eskola
- 10.San Nikolas Eliza
- 11.Herriko Plaza
- 12.Udaletxea
- 13.Hilerria
- 14.Untziola aztarnak
- 15.Tren Geltokia
- 16.Mutiozabal Untziola
- 17.Gureak Fabrika
- 18.Ubegun industrialdea
- 19.San Pablo Ermita
- 20.Untzi garbiketa



Gaur egungo altxaera orokorrak




Altxaera Kaiatik E:1/400



Altxaera Arrantzale kaletik E:1/400



Herriaren altxatu orokorra E:1/1000




Orioko San Nikolas Errege Hiribildua

_JATORRIA

Orioko herria, jatorriz, San Nikolas izeneko parrokia txiki bat zen. Hasieran, Donostiako jurisdikziopean zegoen portu txikia, populazio gutxikoa eta garrantzi eskasekoa.

Oria ibaiaren bokalean kokatzen zen, San Nikolas elizaren inguruan eta gehienbat Aiako lurretatik etorritako jendea zen. Populazaike haiek beraien interes ekonomikoak ziurtatu nahi zituzten, jana lurraldean eskasa bait zen, beraz, burdina erabili zuten trukerako produktu gisa.



_Garaiko hiribilduen antolamendu planoak

_HIRIBILDUAREN SORRERA

Honen ondorioz sorturiko komertzioak, Bizkaitik haratago eraman zituen. 1293.urtean Orioko portua probiltziako burdin esportatzaile gisa nabarmentzen zen. Egoera hau kontuan hartuz, biztanleak izan ziren Erregeari Hiri Gutuna eskatu ziotenak.

Gainera, defentsa eta segurtasun baldintza haiek monarkiaren politika hedatzailearen mesederako ziren. Izan ere, politika horren arabera, bai Orio eta bai gainerako itsas portuak Gaztelaren eta penintsulaz kanpoko beste erresumen arteko elkartrukerako lekuak ziren.

Hala nola, Donostiaren menpean zegoen portua garatzeko, Gaztelako Erregeak, Juan I.ak, Orioren fundaziorako hiri-gutuna eman zuen Burgosen 1379ko uztailearen 12an. Dokumentu haren bitartez sortutako hiribilduari "Villarreal de San Nicolás de Orio" izena jarri zitzaion eta bertako biztanleei Donostiako Forua eman zitzaion.



_Etxebizitza zaharrenetarikoa baten portada giltzarria

_ORIAKO ITSASADARRAREN JURISDIKZIOA

Oria ibaia interes ekonomiko handiko garraiobidea zen eta, hori dela eta, zenbait auzi izan ziren Orio eta Aiako herrien artean. Hainbat eskubide (kanalaren adjudikazioa, erriberako garraio eta nabigazioa, karga eta deskarga..) auzitan emandago epai bidez erabaki ziren. Orioko hiribilduari, ibaia alderik alde pasatzeko bi txalupa izateko pribilegioa eman zitzaion.

Ibaia zeharkatzeko zubi gutxi zegoenez, zerbitzu erregular bat ezarri zen, komunikazio erraztuz (ibiltariak, erromesak, markatariak, zaldi garraioa..) Komunikabide haren interes ekonomikoa bistakoa zen Orioren garapenerako, izan ere, Orioko eskua barnealdeko nekazal guneeekin lotzen baitzuen eta horrek aukera ematen zien erriberako biztanleei hainbat produktu lortzeko.



_Karlsten garaian militarrek eraikitako zubia

Barra eta Moilaren Bilakaera

_ERDI AROA

Hasiera batean badirudi ez zela aparteko arazorik sortzen barra eta itsasadarraren barrena nabigatzeko. Ibaiaren bokalean, antzeko bokale guztietan bezela, beti pilatu izan da hondarra (uhoaldeek, mareek eta hondartzaren mugimenduek eragiten dute hori).



_Orioko itsasadarra



_Babesik gabeko itsasadarra

_LEHEN ERREIBINDIKAZIO ALDIA (1533-1642)

Barrako lehen obrak 1533.urtean egin ziren. Esan liteke barrak orduan zuen egoera txarra lehendik zetorrela eta piskanaka gehiago hondatzen joan dela. Lehenago konpondu ez bazen arrazoi ekonomikoengatik izan zen. Orioko herriak egindako eskari bati erantzuna emanez, Junta Nagusiak 200 dukateko laguntza ematea erabakiz uen Orioko barran zenbait lan egiteko

Urtetan kanalaren sakonera nahikoa izan zen nabigazioa ziurtatzeko. Bokalean bi metroko sakonera omen zegoen marea behean bazegoen eta zabalera nahikoa garai hartan erabiltzen ziren untzietarako. Denborarekin hondatzen joan zen eta derrigorrezkoa ikusten zen 1574.urtean barra berriztatze lanei segida ematea.

Erregeari hainbat diru laguntza eskari bidali arren, ez zuten fundamentuzko erantzunik jaso eta ondorioz urtez urte herriaren diru sarrera mugatuarekin lortu zen noizbehinka barrara harriak botatzea, baina ez zen nahikoa.

Egoera larritasuna ikusita, Gabriel Hoak, estatu idazkariak, barra lehenbailehen konpontzeko premia azaldu zion Erregeari. Orio ibaiko untzioletan egindako nao eta bestelako untzien irteera errazteko onuragarria izango zen.

Erregeak kasu hartan onetsi zuen, baina zerga bat ezarri zuen irabaziak estatuak jasoko zituelarik.



_Barrako obra amaigabeak

_PORTU GABEZIA-MOILA

Itsasora irten eta sartzeko arriskua dela eta herriak ez zuen portu nagusi bat, salmentak ahalbidetuko zituen. Arrantzaleak, beraz, orokorrean beste portu batzuen mende ibili behar izaten diren. Hala era, itsasoarekiko zuten lotura nabarmena da, izan ere, arriskuak alde batera utzita arrantza asko egiten zen eta garai batean 13 ziren arrantza baporeak.

Moilak, ordea, herriko plazarekiko gertutasunaren ondorioz garrantzi handia izan du mendeetan zehar. Tamalez, honen egoera dela eta, uholdeak ia urtero gertatzen diren. 1967.urtean hasi ziren obrak eta honen finantziazioa egiteko alkateak aurreko urteko uholde baten argazki tranpa bat erabili zuen.



_1966.urteko uholdea



_1967 moila berriztatze lanak

Aktibitate Ekonomiko Nagusiak

_ARRANTZA

Arratza (bai itsaso eta baita ibaiko) aktibitate garrantzitsua izan zen Goi Erdi Aroan eta hazkunde progresiboa izan zuen XVI-mendeko azken laurdenera arte. Lehen baporeek aldaketa esanguratsua ekarri zuten arrantzaleei, lurrina ikatza errez sortzen zutelarik. Ordura arte arrantzarako erabilitako traineruak arraun leiharako geratu ziren eta arrantzarako baporeak erabiltzen hasi ziren.

Orion emakumeen lana izan da sareak jostea. Normalean bapore bakoitzak bi jostun izaten zituen eta lan gehiagi zegoenean elkarlanean ibiltzen ziren. Sareak kotoizkoak ziren eta makilak erabiltzen ziren hauek lehortzeko. Lehortu ezean usteldu egiten bai ziren.



_Lehen baporea



_Sare jostunak

_MERKATARITZA

XV.mendearen erdialdetik XVI bitarte, Oriok susperraldi ekonomiko handia izan zuen, ohizko merkataritzari eutsi zion eta horrez gain, alturako arrantza inoiz baino gehiago garatu zuen. Lehen helburua bakalao-arrantza bazen ere, euskaldunak 1530.urtean hasi ziren balea-arrantzan Ternua et Labradorren (Kanada).

Arrantza kanpainenetik sorturiko merkataritzak eragin handia izan zuen itsas ekonomiaren gorakadan. Bakailao gazituaren komertzioa eta, batez ere, balea gantza edo olioarena Frantzia, Ingalaterra eta Flandeseko harremanak zituzten merkatal floten bano garrantzitsuagoa bilakatu zen.

XVI.mendeko 40-50 hamarkadetan balea-gantza erematen zen Kanadatik Flandes eta Ingalaterrara. 1570etik aurrera, untziek Portugaleko Aveiro, Setubal eta Cadizera eramaten zuten burnia, Terranova bidean saltzeko.

Gainera, *Eubalaena Glacialis* izeneko baleak, Bizkaiko itsasoko kostara jotzen zuten udazkenean, Ipar Atlantikotik zetorren bertan negua pasatzera. Orioko arrantzaleak Galiziako kostaraino iristen ziren Goiz Erdi Aroan bale bila.



_UNTZIGINTZA


Orio ibaiko untzigintza XVI.mendean sendotu zen. Usurbil eta Orioko jurisdikzioetako untzioetan tamaina askotako untzia eraiki ziren. Untzi batzuk Erregearen armada eta floten zerbitzurako izaten ziren, Erregeak beretzat hartzen baitzuten, beste zeregin batzuetarako eginda bazeuden ere.

Untziak kontratuan ezarritako baldintzen arabera hornitzen ziren. Aldez aurretik zehazten ziren gilak eta beharrezko izango zen zur eta oholak batetik eta burdinazko piezak bestetik. Oria ibaiko burdinolek espezializazio maila altua lortu zuten untzietako burdinazko piezak egiten.


Galeoi asko Indietako Karrera erabiltzen ziren merkurioa garraiatzeko. Izan ere, ezin hobeak ziren zilarra bueltako bidean ekartzeko eta, modu berean, piraten erasoei aurre egiteko.




_Orio 1920



_Vicente Seguraren planoak 1785




1. Orioko Erribera (XVII-XVIII m.)



4. Mutiozabal (XIX m.)



5. Ostolaza (XX m.)



6. Arin eta Embil (XX m.)



7. Oria-Portuondo (XVII m.)




9. Uriberri-Mapil (XVI-XX m.)



Herriaren Hazkundera


_XVI-XX

Untzigintza eta arrantza aldetik indartsua zen arren, Orioren bereizgarri zen populazio txikia. Garai batean sei bat kale estu ziren San Nikolas elizaren inguruan antolatuta, Erriberako untxiolaren parean. Kofradia hain zuzen ere gune honetan eraiki zen 1926ko azaroaren 18an Orioko Kasko Historikoan.



_1954.urtea

Urtez urte, Kasko Historikoa iparralderantz zabaltzen joan zen eta hasiera batean inguru ireki batean kokatzen zen kofradia, inguratzen joan zen herria. Ibaiarekiko lehen lerroa mantenduko da, aldiz, atzealdeko kalea asko estutuko duten etxebizitzak eraiki ziren.



_GAUR EGUN

Azken hamarkadetan herriak ipar-mendebalderantz eman duen hazkundera da nabarmenena. Alboko eraikina anbulategia da eta herriko ikastolak ere presentzia handia hartuko du. Kofradia eraikinez mugatuta gelditu da eta puntu 'hil' bat bilakatu da honen atzealdea.



_HEGOALDEKO FATXADA



_EKIALDEKO FATXADA



_HEGO-EKIALDE ERTZA



_EKI-IPARRALDE ERTZA



_HEGOALDEKO FATXADA



_MENDEBALDE-HEGOALDE ERTZA



Eraikinaren Garapen Historikoa

_1926

Arrantzaleen beharrei erantzuna emateko, Kofradia Ori ibaiaren ertzean eraiki zen Kasko Historikoaren muga. Itsasadarra gurutzatzean aurkitzen zen lehen eraikina zen karga eta deskarga lanak ahalik eta eroso et azkarren gauzatzeko. Gune honetan kokatzen zen aurretik Erriberako untziola.




_1995

Kofradia originalak dorre eta estalkipeko solairu bat zuen (garbitzaile bizi zen gunea). Urte honetan hau eraisteko agindua eman zen erortzeko arriskua aurreikusten bait zen. Estalkia osotasunean konpondu zen, lau isurialderekin.



_2009

Kofradia berria eraiki zen instalazio hobeekin itsasadar hasieran eta San Nikolas Kofradia zaharra itxi zuten.




_1950

Fatxadan zenbait berrikuntza lan egin ziren beharren arabera (leihoak, balkoiak...). Gainera zenbait apaingarri elementu gehitu zitzaizkion fatxada babesteko, izan ere, kokapenari dagokionez oso ikusgai geratzen zen haize korrenteekiko.



_2005

Akordio urbanistiko bat firmatu zen Oriko udaletxe eta San Nikolas kofradiaren artean. Kofradiaren albotik pasatzen zen kalea egokitu nahi zen kasko historikoko trafikoa egituratu eta ur beltzen sistema egokitzeke. Exekuzio honek zailtasunak izan zituen eta asentatzeen ondorioz, kofradiak pitzadura nabarmenak jasan zituen.



_2010

Udaletxeko teknikariek eraikina aztertu zuten eta 'ruina' modura izendatu zuten. Eraikina perimetro osoan hesitu zen eta egitura arazoak ikusita, segurtasun elementuak batu zitzaizkion.



_KOFRADIA



_ANBULATEGIA



_BIGARREN HEZKUNTZA ESKOLA



_PATIOA




_LEUNDA FABRIKA



_AROSTEGUI TAILERRA



Kofradiaren inguru gertuaren azterketa Mugak



_A IKUSPEGIA



_B IKUSPEGIA



_C IKUSPEGIA



_D IKUSPEGIA



_E IKUSPEGIA



_F IKUSPEGIA




Orioko itsasadarra

Kofradiaren Arkitektura


_BEHE OINA

Hasieran bi eskabetxera zeuden korridore zabal batez bereiztuak. Gaur egun zatikatuta dago eta barku edo erraminta biltegi modura erabiltzen da. Ibairantz sei arkutarte osatutako arkupea du.




_LEHEN SOLAIRUA

Originalki Salmenta gela, Eskola Nautikoa, Museoa, Idazkaritza, Bilera Gela eta sareen biltegia kokatzen ziren. Gaur egun solairu azalera handi bat arrantzaleen etxebizitzek betetzen dute.





_BIGARREN SOLAIRUA

Zeharkako norabidean antolatzen diren 7 etxebizitza daude. Hauek hiru krujia nagusitan zabaltzen dira. Erdiko krujian kokatzen dira gogelak, kasu askotan irekidurarik gabe.



_ESTALKIA


Estalkiko egoera kaskarra dela eta, eraikinaren zentroko gorputza kendu zen, beraz, azken solairu hau trasteleku gisa erabili izan da. Dorrearen eraistearekin batera lau isurialdetako estalkia berritu zen.




_MENDEBALDEKO FATXADA





_HEGOALDEKO FATXADA



_EKIALDEKO FATXADA



_IPARRALDEKO FATXADA



_DESKRIBAPENA

Oin laukizuzendun eraikinak 37m ditu luze eta 17m zabaleran. Behe oinak, tarteko bi solairu eta estalkiak osatzen dute eta hegoaldeko fatxada da esanguratsuen. Zazpi modulutako konposizioa duenez erdiko ardatza nabarmentzen da. Arkutarte hau zabalagoa da eta (dorrea gaur egun egon ez arren) arkuak ardatza indartzen du modu argian. Goiko solairuetan gainera, balkoi jarraian ardatz honetan kokatzen dira eta hauen gainaldetan fronto klasiko bat nagusitzen da.

Konposizio klasikoa da, portikoa eraikinaren oinarritzat hartuz, pilastraz bananduriko 7 krujia simetria jarraituz. Hala ere, urtez urte irekidura ezberdinak ireki dira hasiera bateko konposizioarekin koordinatu gabe.



Materialtasuna eta patologiak

_DESKRIBAPENA





Kofradia 1926.urtean eraiki zen,hormigoia hastapenetan, beraz, zenbait puntutan arazoak esperientzia ezak sorturikoak izan litezke.

Fatxadako arazoei dagokienez, klima hezeak eta urtetan itsasertzean kokatzeak desgaste bat eragin du osotasunean.

Gainera, garaiko zenbait arrantzalek Orioko etxea errentan jartzen zuten dirua irabazteko eta bitartean kofradian bizi ziren. Honek, zaintze falta ikaragarria suposatu zuen.

Iparraldeko fatxada da traketsena. Beti tratatu izan da 'atzeko' fatxada moduan eta bertan kokazen dira instalazioak. Orientazioak eta kalearen estutasunak sorturiko itzalak giro hezea sortzen du.

Egitura arazoak ikusita, gaur egun eraikinaren barrualdea puntalez josita dago eta perimetro osoa hesitu da material erortzetik oinezkoak babesteko.






_MATERIALTASUNA

- Teilak
- Zura (estalkiko egitura + forjatuak)
- Harria (eraikin ertz, zokalo, arkupeak)
- Zementua (elementu dekoratiboak)
- Hormigoia + tirolesa (akabera)

_PATOLOGIA NAGUSIAK

- Pitzadurak
- Albeolarizaioa
- Higadura
- Zoldak
- Patina Beltza
- Patina Biologikoa
- Erortzea
- Korrosioa
- Desplakatzea
- Hezetasunak
- Material galera




Orioko San Nicolas Kofradia zaharraren birgaitzea
Orioko itsas oroimenaren museoa

Hirigintza azterketa

LURZORUAREN KLASIFIKAZIOA


Hiritarra



- Lurzoru hiritarra
- Lurzoru urbanizagarri sektorizatua
- Lurzoru ez urbanizagarria

LURZORUAREN KALIFIKAZIOA

Etxebizitza/Portu Gunea



- Etxebizitza
- Gune industriala
- Portu gunea
- Espazio libre hiritarra
- Ekipamendua
- Bide sarea

ALDE ZAHARREKO ELEMENTU KATALOGATUAK

Interes gabekoa



- Babes berezia
- Babes ertaina
- Oinarrizko babesa
- Interes gabekoa
- Gune arkeologikoa

22/28 KOSTA LEGEA RD 1112/92

25.Artikulua:

1. Debeztatuta etxebizitza erabilera, intentsitate handiko errepideak, testsio altuko instalazioak, publizitate elementuak eta hondakinen isurketa.

2. Onartuak izango dira izaeragatik itsas ertzean egon behar diren ekintza edo instalazioak (cultivo marítimo, salinas...). Edo itsas guneari zerbitzu emango dion edozein eraikin (kirol instalazioak adibidez).

27.Artikulua:

1. 6metrotako espazioa utzi beharko da ibai ertzetik barrualderantz. Gune honetan oinezkoen pasabidea eta segurtasun ibilgailuen mugikortasuna ahalbidetuko da.

2. Gune hau okupatua izan ahalko da obrak direla eta beste pasabide bat ahalbidetzen bada.

KASKO HISTORIKOAREN ERREABILITAZIORAKO PLAN BEREZIA

ERAIKUNTZA INTERBENTZIOAK

OIN BERRIA		BAI
ERAISKETA	TOTALA	BAI
	PARTZIALA	BAI
HANDITZERIK GABEKO	ZAHARBERRITZE ZIENTIFIKOA	EZ
	ZAHARBERRITZE KONTSERBATZAILEA	EZ
	ZAINTEA ETA APAINTZEA	BAI
ERAIKUNTZA ESKU-HARTZEA	SENDOTZEA	EZ
	ERREFORMA	BAI
ERAIK. HANDIPENAREKIN		BAI
MISTOAK	BERRIZATZEA	EZ
	BERRERAIKITZEA	EZ


Kofradiaren fitxan eraikinaren errestaurazioa planteatzen da, fatxada maritimoa errespetatuz eta jatorrizko arkitektura berreskuratuz. Atzeko alineazioa aldatu egingo da kostas legetik kanpo dagoen gunean, kalea ahalik eta gehien irekitzeko. Dorrea errekupeztatzen da estalkiaren inklinazioa modifikatu daiteke.

ERABILERA ORDENANTZAK

	PARTZELA	SOTOA	SEMI S. B.	OINA 1.	OINA 2.	OINA	ESTALK.
ETXEBIZITZA	BAI	-	-	EZ	BAI	BAI	BAI
KOMERTZIOA	EZ	-	-	BAI	BAI	EZ	EZ
BULEGOAK	EZ	-	-	BAI	BAI	EZ	EZ
ERRESIDENTZIA KOMUNITARIOA	EZ	-	-	EZ	BAI	BAI	BAI
OSASUNA							
KULTURALA							
HEZKUNTZA							
ERLIJIOSOA	BAI	-	-	BAI	BAI	BAI	BAI
AISIGUNEA							
KIROLA							
ZERBITZU PUBLIKOA	BAI	-	-	BAI	BAI	BAI	BAI
APARKALEKUA	EZ	-	-	EZ	EZ	EZ	EZ
INDUSTRIALA	EZ	-	-	EZ	EZ	EZ	EZ

HAPo-k kofradia etxebizitza eta portu gune modura kalifikatzen duen arren, proiektu honetan erabilera tertziarioa (kulturala) proposatuko da.

Helburuak







Hirigintza Aldetik:

1. Itsasertzeko pasealekuari jarraitasuna eman nahi zaio.
2. Zeharkako oinezkoen bigarren ibilbide bat lortu nahi da.
3. Nukleo kultural bat sortu nahi da, bigarren espazio publiko malgu batekin.

Kofradiak berak:

1. Oriko memoria historikoa berreskuratu nahi da itsas ondarea goraipatuz.
2. Herritarren lotura inplikazioa lortu nahi da, parte hartze orokor bat publiko ezberdinentzat.
3. Kofradia zaharraren berezko izaera berreskuratu nahi da, arrantzale eta herritasunen gertutasuna lortuz.

Interbentzio Prozesua Estrategia



GAUR EGUNGO EGOERA

Kofradia hesituta dagoenez inguru osoa blokeatzen du. Pasealekua eteten da eta Kofradiaren atzealdeko Leunda fabrika oztopo bat da ibiltarientzat. Anbulategi inguruko lorategiak ere ez du funtzionatzen eta inguruko espazioa jaten/isten du.

ESPAZIOA IREKITZEA


Kaia kalearen amaiera irekitzeko asmoz, utzitako Leunda fabrika eta Kofradiaren alboko eranskina eraitsiko dira. Anbulategiaren kanpo lorategia ere proposamenetik kanpo geldituko da espazio publiko irekiago bat lortzeko eta itsasoarekiko lotura berreskuratzeko.

GUNE KULTURALA SORTU



Espazio publiko ireki bat proposatzen da. Hau indartzeko Itsas Oroimenaren Museo sarrera bertara irekiko da eta itsasorantz doan ibilbidea ahalbidetuko da, baita kaiaren jarraipena ere. Eraikin berriaren eta Kofradiaren artean lotura zubi bat egingo da eta Kofradiak argi iturria ardatz bertikaletik jasoko du.

Proposamenaren irudia


_OINEZKOEN IBILBIDE BERRIAK




_IBILGAILUEN AUKERA




_KOMUNIKAZIO ELEMENTU BERRIA




Eraikin berria eta Kofradia lotuko dituen 'sugea'-k sekzio mota ezberdinak sortuko ditu. Solairu bakoitzean, kofradiara lotzeko puntua ezberdina izango da, beraz, hiru oin nagusiak ezberdinduko dira. Zirkulazioa perimetrotik egiten denez, eraikinaren barnealdea liberatzen da, espazio ireki eta etenik gabekoak sortuz. Estalkiak ere sekzio bakoitzean altuera ezberdin bat izango du, sugearen irregulartasuna nabarmenduz.



_Behe oineko lotura



_Lehen solairuko lotura



_Bigarren solairuko lotura

Irudi Orokorrak




_Espazio publikotik ikuspegia



_Kaiatik ikuspegia


HIRUGARREN SOLAIRUA

Instalazio solairua




BIGARREN SOLAIRUA

Ikerketa Zentroa
Museoko administrazioa
Komunak




LEHEN SOLAIRUA

Ikasgela
Gela Malgua
Proiektzio Gela
Bilera Gelak
Komunak



BEHE OINA


Zentroko harrera Gunea
Aretoa
Komunak
Bulegoa



Programa


(Ikerketa Zentroa-Erakusketa Gunea)

ESTALKIA




BIGARREN SOLAIRUA

Tailerrak
Larrialdietako irteera
Komunak
Biltegia




LEHEN SOLAIRUA

Erakusketa Gunea
Larrialdietako irteera
Komunak





BEHE OINA

Museoko Harrera
Denda
Erakusketa irekia
Komunak
Jatetxea



Antolamendua



_GUNE HEZEA

KOFRADIA: Eraikinaren iparraldeko fatxadan kokatuko dira zerbitzu guztiak lerrotatuta. Horrela gainontzeko espazioak libre bilakatuko dira eta eraikinaren inguruko zirkulazioa ahalbidetuko da.

ERAIKIN BERRIA: Kasu honetan zerbitzu guneak irla barneko fatxada itxuan kokatu dira. Komunikazio elementuekin batera solairuz solairu bertikalki parean.

_KOMUNIKAZIOA

KOFRADIA: Zirkulazio elementu nagusiaz gain, eraikinaren okupazioa ikusita, larrialdietarako eskailera babestu bat aurreikusi da, hau ere iparraldeko fatxadako lerroan kokatuko da.

ERAIKIN BERRIA: Gune hezeekin parekatuko da eraikinaren atzeko fatxadan.

_INSTALAKUNTZAK

Museoa ahalik eta libreen edukitzeko asmoz, Eraikin Berriaren gainaldean instalakuntza solairu bat proposatzen da. Bi blokeak lotzen dituen 'galeria' erabiliko da bi eraikinak hornitzeko. Hauen banaketa iparraldeko fatxadatik egingo da betiere.

BEHE OINA

ERAIKIN BERRIA 334.8m²

- 0. Harrera 44m²
- 1. Zirkulazioa 81.2m²
- 2. Aretoa 107.4m²
- 3. Bigarren sarrera 38.3m²
- 4. Bulegoa 23.7m²
- 5. Komunak 20.7m²

KOFRADIA 527.3m²

- 0. Harrera 101.4m²
- 1. Hall nagusia 247.6m²
- 2. Larrialdietako irteera 12.3m²
- 3. Denda 24m²
- 4. Biltegia 5m²
- 5. Komunak 28.1m²
- 6. Kontagailu gela 4.5m²
- 7. Kafetegia 60.6m²
- 8. Sukaldea 9.3m²
- 9. Biltegia 5m²



LEHEN SOLAIRUA

_ ERAIKIN BERRIA 316.5m²

- 0. Komunikazio gunea 66m²
- 2. Patioa 22.2m²
- 3. Komunak 20.7m²
- 4. Proiekzio gela 32.9m²
- 5. Ikasgela 59.5m²
- 6. Gela malgua 47.9m²
- 7. Bilera gela 1 24.8m²
- 8. Bilera gela 2 20.6m²

_ KOFRADIA 433.8m²

- 0. Komunikazio gunea
- 1. Erakusketa gunea 402m²
- 2. Larraldietarako irteera 12.3m²
- 3. Komunak 12.6m²



BIGARREN SOLAIRUA

ERAIKIN BERRIA 283.6m²

- 0. Komunikazio gunea 66m²
- 2. Patioa 22.2m²
- 3. Komunak 20.7m²
- 4. Bulegoa 1 13.9m²
- 5. Biler gela 18.5m²
- 6. Ikerketa gunea 96.2m²
- 7. Bulegoa 2 20.3m²
- 8. Artxibategia 6.3m²


KOFRADIA 433.8m²


- 0. Komunikazio gunea
- 1. Erakusketa gunea 100.4m²
- 2. Larraldietarako irteera 12.3m²
- 3. Komunak 14.3m²
- 4. Biletgia 8.5m²
- 5. Haurren tailerra 61.4m²
- 6. Eskulan tailerra 1 48.6m²
- 7. Untzi birgaitze tailerra 2.73m²
- 8. Ikasgela 3 47.6m²



ERAIKIN BERRIA 255m²


- 0. Komunikazio gunea 12m²
- 2. Patioa 22.2m²
- 3. Gela tekniko 20.8m²
- 4. Instalazio gela 45m²
- 5. Estalki lau ez irisgarria 134.5m²












+3.8m




(5)














EGITURA PROPOSAMENA



_Eraikin berriaren egitura

Eraikin berriaren altuera kofradiarekin parekatuko dira eta patio baten inguruan antolatuko da. Forjatua norbide bakarrekoa izango da eta zenbait lekutan lauzerak erabili beharko dira oinak zenbait gunetan hartzen dituen angelu zailak kontuan hartuta.

_Kofradiaren egitura

Gaur egun perimetrea (hormigoizko blokedun) karga homak eusten du eta barnealdean hormigoizko habe-zutabeak nagusitzen dira erretikula ortogonal bat osatuz. Forjatua eta estalkiaren egitura berriz zurezkoak dira.

Eraikinaren egitura ahal den neurrian mantentzea proposatzen da, eta berritzea beharrezkotzat jotzen den puntuak, egitura originalarekin bat etorri beharko du konposizioa osotasunean mantentzeko.



_Argi zulo berriaren itxura


'Sugea'-ren eraikuntza sistema berdinarekin jarraituz, argi zuloa ere korten altzairuz osaturiko erretikula jarraia izango da. Zutoinen artean kokatuko da beira eta ur bilketa tramo bakoitzeko egingo da.

_Argi zulo berriaren azpiegitura

Estalki berria sustengatzeko, patioko berezko hormigoizko zutabeak luzatuko dira. Zutabe hauek paraleloki antolatzen dira, beraz, estalkiko goiko puntuan alderik alde lotuko dituen habe horizontalak kokatuko dira.

_Estalkiaren asimetria

Iparraldeko estalki zutabeak hegoaldekoak baino motzagoak izango dira. Eraikinaren 3 krujiek ez dute sakonera bera, ondorioz, egitura estalkira iristean, patioa deszentratuta gelditzen da. Hala ere, egoera honek 'sugea'-ren irregulartasuna indartzen du beste behin ere.



_Galeria eta estalkiaren arteko elkargunea

Estalkiaren inklinazio handiagatik (%48), galeria berria kofradiara atxikitzen denean altuera desoreka bat sortzen da. Hau konpontzeko, kofradiaren habe bat kendu eta galeriaren egitura izango da barruta sartuko dena. Honen zati bat hegalduran egongo da.

_Kofradiaren egitura

Ahal den neurrian kofradiaren egitura mantentzea aurreikusten da, baina, puntu asko errefortzatu beharko dira zirkulazio elementu berria batzerakoan. Bi eta hiru solairuetako sarrera inguruak, adibidez, errefortzu berezia izango duten 'laukiak' osatuz.

_Galeriaren berezko egitura

Galeria kofradiako sarrera puntuetan lotuko da. Behin egitura zati hau finkatuta, eskailerak puntu hauek lotuz sustengatuko dira. Altzairuzko egitura arina izango da.



Galeria eredia

Bi blokeen arteko lotura galeria batez bidez egingo da. Eraikuntza sistema berriari jarraituz, korten altzairuzko zutoi jarraipen batek osatuko dute eta tarteko beirari esker lortuko da kanpoarekiko erlazioa.


Zahar-berri elkargune eredia

Eredu honetan bezala, elementu berri bat batuko zaio kofradiari komunikazio elementu modura funtzionatuko duena. Eraikuntza sistema guztiz bestelakoa izango da, baina, eraikin osora zabalduko da.



Saint Francisc Church
David Closes, Santpedor

ERAIKUNTZA SISTEMA PROPOSAMENA
(erreferentziak)



Fatxada zaharra

Kofradiaren fatxadan hainbat lesio ageri dira. Isolamendu falta nagusitzen da eta baita hezetasun arazo handiak ere. Hormigoiarene erabilera proposatzen da eraikinaren berezko materialtasuna errespetatuz isolametzailerak batuz.

Fatxada berria

BiBat museoko fatxada proposatzen da Korteen altzairua eta beira. Eraikuntza sistema hau eraikin osora zabalduko da bi blokeak eraikin bakar bat bezala ulertuz. Fatxadaren gardentasunak behe oin arinago bat sortuko du, kaia eta espazio publikoaren arteko lotura gehiago nabarmenduz.


Istalazioen eroanbideei dagokienez, sabai faltsutik aurreikusten dira. Galeriaren goialdeko azken 60zm-ak itsuak izango dira konduktoak bideratzeko.

Patioak

Bi blokeetan patioak erabili dira argiztapen lortzeko. Trataera bera erabiliz, fatxadako sistema berarekin jarraituko da. Gune batzuk itxiagoak izan arren (pribatutasuna lortu edo zerbitzuak kokatzeko) konposizio bat lotu nahi da bertikalean behe oina eta estalkia lortzeko.

Espazio publikoko altzariak

Kaiako ibilbide ireki garbi eta jarraiari kontrajarriz, begetazioa eta hiri altzariak bilduko dituen gune bat proposatzen da. Nukleo osoari bateratasun bat emateko asmoz, hiri altzarien ere fatxadako materialtasuna jarraitzea proposatzen da (plano horizontalean).



Patio eredia


Eraikuntza sistema berria Kofradiaren barnealdera ere zabalduko da. Elementu bertikalen konposizio bat proposatuko da, solairuz gradualki aldatzen joango dena estalkiraino.

Fatxada eredia

Oinarritzko fatxada Korteen altzairuzko zutabe jarraipen batez osatzen da. Beira nagusituko da kanpo barne erlazioa handitzeko. Materialtasun honek atzealdeko kalearen estutasuna murrizten lagunduko du, biziagoa izango da fatxada diafano bati esker.




BiBat arkeologia Museoa - Fournier de Naipes
Francisco Mangado, Gasteiz





A XEHETASUNA

- 1.6mm-ko segurtasun beira laminatua
- 2.Aire ganbera
- 3.10mm-ko beira tenplatua
- 4.Altzairuzko arotzeria
- 5.Altzairu galbanizatuzko lotura perfila
- 6.Teila
- 7.Bigarren mailako arrastrela 100x100mm
- 8.Lehen mailako arrastrela 200x200mm
- 9.Poliestileno estruituzko isolamendua 15mm
- 10.Hormigoizko egitura habea
- 11.Zurezko estalki egitura habe nagusia



B XEHETASUNA

- 1.Altzairuzko txapa lakatua 3mm
- 2.80mm lana arroka isolatzailea
- 3.DM tablero hidrofugoa
- 4.Altzairuzko arotzeria
- 5.Isolaturiko beira 6+6/12/6
- 6.Altzairuzko perfila
- 7.Sabai faltsuaren euskarria
- 8.Hormigoizko bloke existentek
- 9.Lamina iragazgaitza EPDM
- 10.Lana mineral isolatzaile termikoa
- 11.Fijazio mekanikoa
- 12.Altzairu lakatuzko perfila 41/5 mm
- 13.Aluminiozko txapa plegatua 2mm
- 14.Ur bilketarako rejila
- 15.Altzairuzko pieza angular galbanizatua
- 16.Txertaketa mekanikoa




C XEHETASUNA


- 1.Korten altzairuzko muntagak
- 2.Altzairu oinarriko fijazio saihetsak
- 3.Eguzkiarekiko babes oihala
- 4.Sabai faltsuaren azpiegitura
- 5.Hormigoizko gangatilak
- 6.Mailazoa
- 7.Isolamendu termikoa
- 8.Zurezko tarima
- 9.Altzairuzko arotzeria
- 10.Forjatu eta itxitura lotura pieza

Instalazioen eskema


_HIRUGARREN SOLAIRUA




_BIGARREN SOLAIRUA



_LEHEN SOLAIRUA



_BEHE OINA



Instalazioen eskema

_AIREZTAPENA

Aireztapen sistemaren jatorria eraikin berriaren azken solairuko instalakuntza gelan kokatzea proposatzen da. Konduktoak galeri zeharkatuz iritxiko lirateke Kofradiara eta bertan 'instalakuntza lerrotik' bideratuko dira solairuz solairu. Oinaren ortogonaltasuna kontuan hartuko da instalakuntzen antolamendu egokirako. Sabai faltuaz baliatuko da kontuzkoak eramateko ahal den neurrian.

_UR HORNIKUNTZA

Jatorria eraikin berria egongo da eta galeriatik bideratuko dira. Behin kofradiara iritsita gune hezeetara bideratuko dira bertikalean (solairu bakoitzeko komun eta behe oineko sukaldera).


_GASA

Erregaiaren arriskua kontuan hartuta, bi blokeetarako sarrera modu indibidualean planteatu da. Izan ere, kofradiaren kasuan behe oinean bakarrik beharko da.


_SANEAMENDUA-UR BILKETA

Ur beltzen bilketa eta euri uren bilketa bloke bakoitzeko egingo da, sistema banandu bidez.

_BIGARREN SOLAIRUA



_LEHEN SOLAIRUA



_BEHE OINA

